

## Ireki da epea izena emateko 2016-2017 ikasturteko gradu eta unibertsitate masterretan

2016/01/11

Dagoeneko irekita dago epea izena emateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 2016-2017 ikasturtean eskainiko dituen gradu eta unibertsitate masterretan. Guztira, hiru gradu eta lau unibertsitate master eskainiko ditu fakultateak hurrengo ikasturtean. Hurrengoak dira emango diren graduak: Haur Hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Ikus-entzunezko komunikazioa. Unibertsitate masterrei dagokionez, hiru hezkuntza arlokoak izango dira eta, laugarrena, Enpresagintza fakultatearekin batere eskaintzen dena, kooperatibismoaren esparrukoa da.

Honako hauek dira graduetan eta masterretan izena emateko epeak:

### Graduak

- Izena emateko epe arrunta: 2015-12-01etik 2016-06-10era.
- Izena emateko aparteko epea: 2016-07-11tik 2016-09-05era (leku hutsak dituzten titulazioen kasuan).
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 2016-2017 ikasturtean eskainiko dituen graduen gaineko informazio guztia.

### Unibertsitate masterrak

- Izena emateko epe arrunta: 2015-12-02tik 2016-07-14ra.
- Izena emateko aparteko epea: 2016-07-15etik 2016-09-09ra.
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 2016-2017 ikasturtean eskainiko dituen unibertsitate masterraren gaineko informazio guztia.

Izen emateak Internet bidez egin ahal izango dira hurrengo helbidean:  
[www.mondragon.edu/inskripzioak](http://www.mondragon.edu/inskripzioak)

Edozein argibiderako jarri harremanetan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Ikasleen Arreta Zerbitzurekin: 943 71 31 39; zerbitzuaren ordutegia: 08:30-12:30 eta 14:30-18:00.



Hezkuntzan izena emandako ikasleekin iaz egindako matrikulazio aurreko informazio saioa.